

## KONTROL MOZIOA

### **ULIAKO UR BILTEGIETARA BISITA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perezek EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko otsailaren 13an Gune Publiko, Obra eta Hiri Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

90  
-1011-  
n 1  
10655  
697  
01200  
EL  
TEE/R  
400A/  
P2007  
CIF  
IFK/

## **JUSTIFIKAZIOA**

Uliako Soroborda ur-biltegia Donostian eraikitako lehen ur-biltegia da. 1869an hasi zen erabiltzen, 1982ra arte. Egun ez da erabiltzen, baina Soroborda eta ondoko Buskando biltegia kontserbazio egoera onean daude.

Lau urtez, Uliako Auzo Elkarteko kideak, beraien borondatez, ur deposituetan antolatutako bisitaldien bitartez, Donostiako historiaren zati eta ondare honen berri eman dute.

Uliako Auzo Elkarateak urtarrilaren 29rako -igandea- ur biltegieta antolatutako bisitaldiak beteta zituela (90 lagun izena emanda), ostiralez bisita egiteko baimena ukatu zitzaien.

Baimena ukatzearen arrazoia segurtasun neurriak ez betetzea eta bisitaldiaren ardurak zehaztuta ez egotea izan da.

Otsaileko Gune Publiko, Obra eta Hiri Zerbitzuetako Batzordean, udal talde politiko guztion intereseko ekimena dela argi geratu zenez eta Udal Gobernuaren azalpenak nahikoa argiak izan ez zirenez, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkezten duen

**KONTROL MOZIOA:**

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1.- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Uliako Auzo Elkartearekin eta Uliako Lore Baratzak taldearekin elkarlanean, martxoaren 26rako eta ondorengo hilabeteetako azken igandeetarako aurreikusita dauden ur biltegietarako bisitak bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea eta martxan jartzea.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Naiara Sampedro Perez  
EHBilduko Zinegotzia